

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko udal laguntzen 2020ko deialdia jasotzen duen 2020ko maiatzaren 13ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 510095

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

Deialdiaren xedea

Garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak ekintzak finantzatzeko laguntzak ematea, Donemiliagako udalerritik elkartasunezko harremanak sendotzen laguntzeko.

Diruz laguntzekoak izango dira 2020an zehar egiten diren garapenerako lankidetzak proiektuak. Dirulaguntza jaso dezakete 2019an egin diren eta aurtengo deialdian eskatutakoekin jarraitasun lotura duten lankidetzak proiektuek. Eskabidean aipatu beharko da proiektua 2019an hasi zela eta 2020an jarraitu egiten duela.

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

— Garapen bidean dauden herrialdeetako herritarrei garatzen laguntzeko eta Donemiliagak dituen elkartasun harremanak sendotzeko garapenerako lankidetzak proiektuak, irabazteko xederik gabeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek edo/eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek sustatutakoak.

— Erakunde eskatzaileek beren helburuen artean honako hauek izango dituzte: garapenerako lankidetzak jarduerak egitea, irabazteko asmorik eza eta emandako diru sarrera guztiak garapenerako lankidetzak jardueretan eta gizarte egintzetan erabiltzea.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko entitateak eta pertsona fisikoak nahiz juridikoak, baldin eta Donemiliagako herriarekin zerikusi zuzena duten bazkideak edo laguntzaileak badituzte eta deialdi honen xedearekin bat datozen proiektuak garatzen ari badira.

Deialdi honetatik kanpo daude:

— Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren menpeko erakundeak eta zerbitzuak, eta aurrezki entitateak. Salbuespena: ikastetxeak ez dira baztertzen.

— Enpresak eta irabazteko xedea duten bestelako entitate guztiak.

— 38/2003 Lege Orokorrek, Dirulaguntzenak, 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera onuradun izatea debekatuta duten entitateak.

— Emakume eta gizonak berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten duten entitateak, ondoko hauek izan ezik: sexu bereko kideez osatuta egonda ere, helburu nagusitzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrian espezifikoak sustatzea duten entitateak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2020ko maiatzaren 13an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hauxe da: 231.481.002. Partida horren zuzkidura, gehienez, 9.505,59 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Aurkezteko epea 2020ko irailaren 7an bukatuko da.

Erdoña, 2020ko ekainaren 11

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO